

## KIROLA

## Ofizialtasunaren aldarriak egin du tartea

ESAITen ekimenez, euskal jokalariek bere egin dute besteak estaltzen saiatu diren aldarrikapena

**JORDI GARRIGOS**

Bartzelona

Gaur Kataluniak eta Euskadik jokatu behar duten partidaren inguruan sortutako polemika guztiaren ostean, euskal jokalariek hartu zuten atzo hitza Bartzelonako Kirolaren Hirian. Bi hautatzaileek eta jokalaria guztiek sinatutako idatzia irakurri zuen bertan Aitor Lopez Rekarte kapitainak, eta «Euskal Herriko selekzio nazionalen ofizialtasuna» eskatu. ESAITen ekimenez eman zen antolatzaileek (Kataluniako eta Euskadiko Futbol Federazioak) emateko asmorik ez zuten prentsurrekoa. Martxel Toledo ESAITeko koordinatzailea Santiago Espot Catalunya Accio plataforma politikoko presidentea aldamenen hartuta agertu zen prentsurrekoan - Kataluniako Selekzioen Aldeko Plataformak ez du bat egin ESAITekin-, eta Euskadiko selekzioko Aranburu, Rekarte eta Tiko izan ziren mahaian. Iluntzean, eta goizean gertatuakoa ikusita, Kataluniako selekzioko jokalariek hartu zuten ekimena eta *Nazioa bat selekzio bat* zioen pankarta atera zuten komunikabideen aurrera. Ez zuten adierazpenik egin nahi izan, eta argazkilariei bakarrik egin zieten harrera.

Ofizialtasunaren aldeko aldarrikapenak tartea izan du, horrenbestez, gaurko partidaren bezperan. Argitzeke dagoen zalantza da gaurko partidaren jokalariek ofizialtasunaren aldeko pankartarik aterako duten. Kataluniako Federazioak eta Euskadikoak *Bakearen alde elkarrekin* leloa aukeratu dute partidarako, eta ez ofizialtasunarena. Atzo, ez jokalariek eta ez ESAITek ez zuten argitu gaurko zer egingo duten. Rekarte kapitainak komunikatua irakurri ostean, gainera, ez zen gai horren inguruan galderarik egiteko aukerarik egon kazetariarentzat. Gaizka Mendieta partidari buruz hitz egiten hasi zenean, dena dela, galdetu zitzaion Espainiako Federazioaren presioei buruz. Ez zekiela gai horren inguruan ezer esan zuen hark, eta gaur aterako duten pankarta zein izango duen ere ez zuen argitzen asmatu, baina ofizialtasunaren eskaerak Camp Nou zelaian oihartzuna izango duela aurreratu du ESAITek.

Martxel Toledo ESAITeko koordinatzaileak partidaren garrantzia nabarmendu zuen, «bi nazioen sentimenduek eta ilusioek bat egiten dutelako». Hori dela eta, ez dagoela gaurkoa baino aukera hoberik bi selekzioen ofizialtasuna batera aldarrikatzeko.

ESAITen ekimenarekin Catalunya Accio proiektu politikoak egin zuen bat atzo -ez da alderdi politiko; proiektu politiko gisa definitzen dute euren burua, eta nazio kataluniarraren independentzia du helburu-. Santiago Espot presidenteak elkartasun osoa adierazi zion atzo «euskal nazioari», eta Kataluniako erakundeek gaurko partidaren inguruan izan duten jarrera

## SAIL HONETAN

[Atsedean hartu ostean, g](#)

[Ez bilatu logikarik](#)

[Senda-agiria jaso du Sav Milosevicek, eta bihar jol](#)

[«Beste aukera bat izan r](#)

[Aranzubia ez da osatu, e izango biharko deialdian](#)

[Gurpegik lagunarteko pa ezin izango du jokatu](#)

[Igoera postuetara egin n salto Alavesek, gaur Her irabazita](#)

[Levante-Reala partida d larunbatean jokatu da](#)

[Levante-Reala partida d larunbatean jokatu da](#)

[Ezusteke gutxi gertatu d Euroligako lehen jardun](#)

[Bultzada bideratzea da g](#)

[Umezurtz](#)

[Umezurtz](#)

[Italianren grina, oztopo r](#)

[Txirrindularitzaren hilabe](#)

['Puerto auzia', artxibatut](#)

['Puerto auzia', artxibatut](#)

[Txapelen jabetza jokoan dute bihar Larretxeak et](#)

['Puerto auzia', artxibatut](#)

[Aimar Olaizola txapeldur ezusterik nahi gaur](#)

[Aimar Olaizola txapeldur ezusterik nahi gaur](#)

[Inoiz baino favoritoago](#)

kritikatu zuen. «Zoritxarrez, Kataluniako erakundeek ez dute asmatu partida honek merezi zuen aldarrikapen kutsua ematen», nabarmendu zuen Espotek. Haren iritziz, garrantzitsua da euskal gizarteari esatea kataluniar gehienek ofizialtasunaren aldarrikapena babesten dutela, eta agerian geldituko omen da gaur Camp Nouen jokatu den partidari (18:30).

**ESAIT-EN ELKARRETARATZEA GAUR.** Bere kabuz atera zuen aurrera atzoko agerraldia ESAITek, eta ez zuen erraztasunik izan Ministadiri egin beharko zelako hasieran entrenamendua, eta Kataluniako Federazioak aldatu egin zuelako tokia azken orduan. Ofizialtasunaren aldarrikapenari tartea egitea zen haien helburua, eta jokalariei babesarekin lortu zuten hori. Helburu berberarekin, elkarretaratzerara deitu du gaur ESAITek Camp Nouen aurrealdean, *Acceso 1* izeneko guneari parean (17:00). Bertatik dute sarrera ESAITek antolatutako autobusetan Bartzelonara doazenek.

## Kataluniako Selekzioen Aldeko Plataformak ez du bat egin ESAITekin

Sekulako ikusmina sortu du gaurko partidak Katalunian. Ikusmina eta polemika ere bai, Kataluniako Selekzioen Aldeko Plataformak partida iragartzeko TV3 katean jarritako iragarkiaren inguruan. Hori-gorritz jantzitako mutiko bat agertzen zen bertan, eta ez zion jokatzeko uzten Kataluniako selekzioaren elastikoa zeraman beste bati. Epailen batek debekatu egin zuen iragarkia, umeak agertzen zirelako bertan. Giro horrekin abiatu ziren Katalunian gaurko partidari buruzkoak, baina Kataluniako Plataformak ez du txintik esan geroztik sortutako eztabaida guztien inguruan. Kataluniako Federazioarekin bat eginda agertu da partidarako aukeratutako leloaren inguruan, eta argi eta garbi esan du ez duela bat egiten ESAITek ez atzoko ez gaurko antolatutako ekimenekin.

Plataformaren jarrerak haserrea eragin du Kataluniako sektore independentistetan. Santiago Spot Catalunya Accio-ko presidentek BERRIARI adierazi zionez, «lotsagarria» da azken gertakarien inguruan erakutsi duen jarrera eta Federazioarekiko duen menpekotasuna.

---

© BERRIA-Edizio Digitala  
[berria@berria.info](mailto:berria@berria.info) - [www.berria.info](http://www.berria.info)

[Lege Informazioa](#)

Euskal Editorea S.L. , Martin Ugalde Kultur Parkea 20140 Andoain Tel 943 304 030 Fax 943 590 17.

